

L-1

SAILKATU GABEKO JARDUERARI DAGOKION IREKIERA ETA FUNTZIONAMENDUKO BAIMENA

Martxoaren 9ko 165/99 Dekretuan ezarritako prozedura bidez tramitatuko da, horretan, salbuetsita dauden jardueren zerrenda ezartzen da, otsailaren 28ko 3/98 Legean, "Eusko Jaurlaritzaren Ingurumenaren Babeserako Orokorra, baimena lortzea aurreikusita daudenena, aipatu Dekretuaren I., II eta III. Eranskinean aipatzen direnak, horietatik kendu egin behar dira hala ere, irekiera Ekintza Adieraziaren bidez lor daitezkeenak, zeinak Ekintza Adierazien Udal Ordenantzaren Laugarren Artikuluan jasota datozen.

Jarduera-lizentzia eskatzean, ondoko agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- * Sailkatu gabeko jardueraren gaineko egitasmo teknikoa, teknikari eskudunak (indarrean dauden berariazko legeekin bat), eta dagokion elkargo profesionalak bere oniritzia emana behar du (ale 1), eta horrek, gutxienez, aplika dakizkiokeen martxoaren 9ko 165/99 Dekretuko IV. Eranskineko hainbat ataletan adierazitakoa jaso beharko du, jarduera zehatz bakoitzaren ezaugarriak kontuan izanik.
- * Jarduera ezartzeko Proiektu Teknikoa egin behar izan bada, obrak amaitzean Obra Bukaerako Ziurtagiria aurkeztu beharra dago, baita kasuan kasuko sektoreen ziurtagiri teknikoak ere. (Obren eta instalazioen Egiatagiri Teknikoak)
- * Jarduera ezartzeko obrarik edo Proiektu Teknikorik egin behar izan ez bada, obrak amaitzean suteen kontrako sistemen, aireztatze sistemen eta larrialdietarako argiteriaren gaineko argazki-erreportajea aurkeztu beharra dago.

IREKITZE ETA FUNTZIONAMENDUKO LIZENTZIA.- Behin, obrak amaitu direla adierazten denean, eta horrekin batera, eskatutako dokumentazioa aurkezten denean, Udaleko Zerbitzu Teknikoek, 15 eguneko epean, ikuskapen-bisita egingo dute, neurri zuzentzaileak bete direla egiaztatu ahal izateko.

Obrak gauzatzeko epea amaitu eta 15 egun natural igaro aurretik Udaleko Zerbitzu Teknikoak eskatutako agiriak aurkeztu ez badira, obrak ikuskatzera joango dira. Kasuan kasu, halaber, egoki deritzoten neurriak proposatuko dituzte.

JEZ-an alta emanda dauden ala ez egiaztatuko da (azken ordainagiria edo sarrera-zigilua duen Alta emateko eskabidearen kopia). Era berean, Estolderia eta zaborrak jasotzeagatik Tasan alta emanda egotea egiaztatuko da.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: 3 HILABETE. (epe horretan ez da, kasuan kasu,

obraren lizentzian zehaztutako denbora-tartea kontuan hartuko).

AKASAK ZUZENTZEKO GEHIENEZKO EPEA: 15 egun.

Akats horiek ez badira zuzentzen, eskaria beste izapiderik gabe artxiba daiteke.